


### **Gehitu egin da euskaraz irakurtzen duten gazteen kopurua** **Gazte euskaldunen % 17k euskaraz irakurtzen dute batez ere**

Abenduaren 3a [Euskararen Nazioarteko Eguna](#) dela eta, Euskadiko gazteek euskaraz idatzitako testuak irakurtzearen bilakaerari buruzko azterketa txikia plazaratzen ari da [Gazteen Euskal Behatokia](#).

[Euskadiko gazteak](#) bildumaren azken txostenak aditzera ematen duenez, euskaraz ondo edo oso ondo irakurtzen duten gazteen % 17k batez ere euskaraz irakurtzen dute, % 24k neurri berdinean euskaraz zein gazteleraz, eta % 56k batez ere gazteleraz. Txosten horiek lau urtean behin burutzen ditu Gazteen Euskal Behatokiak.


Ez dago alde nabarmenik gizon eta emakume gazteen artean euskaraz edo gaztelaniaz irakurtzearen zaletasunari dagokionez: mutil elebidunen % 18k eta neska elebidunen % 17k dena edo ia dena euskaraz irakurtzen dute. Alde esanguratsuenak 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan aurkituko ditugu, bertan gazte elebidunen % 25ek dena edo ia dena irakurtzen baitute euskaraz, herri ertainetan edo hiriburuetan baino askoz neurri handiagoan. Halaber, 15 eta 19 urte bitarteko gazteek eta Gipuzkoan bizi direnek gainerakoek baino ehuneko handiagoak azaldu dituzte euskaraz irakurtzen dena neurtzen denean.

#### **Batez ere euskaraz irakurtzen duten gazte elebidunen ehunekoa, adin taldeen eta bizi diren lurraldearen eta udalerriaren tamainaren arabera**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko gazteak 2012.*

Adierazle honen bilakaera positiboa da. Euskaraz irakurri ahal dutenen artean hizkuntza hori aukeratzen dutenak gehitu egin dira azken zortzi urteotan, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan.



Gazteen euskararen ezagutza eta erabilerari buruzko datu gehiago ezagutu nahi izanez gero, '[Euskadiko gazteak 2012](#)' argitalpenaren 5. kapituluan kontsulta daitezke.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

